

ERAKUNDE ADIERAZPENA AZAROAK 25

Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei aurre egitea

Gure gizarteko eremu askotan, azken hamarraldietan aurrerapen handiak egin diren arren, oraindik ere bizirik dirau emakumeen aurkako indarkeria natural ikusten duen kulturak, eta indarkeria fisikoak, psikologikoak, sexualak, ekonomikoak, ondarezkoak eta politikoak dituzten indize handietan islatzen da hori, baita genero arrazoiengatiko indarkeriaren zigorgabetasunean ere.

Ordezkarri politiko guztiak jakitun gara genero indarkeriagatik izandako emakumeen hilketak giza eskubiderik funtsezkoenen urraketak direla eta, horien artean, bizitzarako eskubidearena.

Uste dugu, bai Istanbulleko Hitzarmenak –Espainiako estatuak 2014. urtean berretsia– eta bai CEDAW gomendioek ere (emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeari buruzko hitzarmeneko gomendioak) administrazioek nahitaez bete beharreko esparru juridikoa osatzen dutela.

Hori dela eta, botere publikoak erantzun bat eman behar diogu gizarte errealitate horri, genero indarkeriari aurre egiteko bitarteko ekonomikoak eta giza baliabideak eskainiz, nazioartean, estatuan nahiz udal esparruan indarkeria matxista guztien aurkako borrokan lortutako erabaki eta hitzarmenetan aurrera egin dadila bultzatuz –eta ez atzera–, eta horrexegatik, Donostiako Udalak konpromiso hauek hartuko ditu:

➤ Istanbulleko Hitzarmena eta CEDAW gomendioak aplikatu daitezela bermatuko du eta Eusko Jaurlaritzaren Erakunde arteko 2. Akordioaren testuinguruan lagunduko du, emakumeen aurkako indarkeria modu guztiak nabarmenduta gera daitezen.

➤ Legeak eta politikak sortu eta aplikatu daitezela sustatu eta babestuko du, emakumeen aurkako indarkeria eragozten, zigortzen eta ezabarazten jarraitzeko nazioartean nahiz eskualdean dauden marko juridikoak aldarrikatuz eta berretsiz, bai eremu publikoan eta bai

pribatuan ere, eta halaber, bikotearen barruko indarkeria eta sexu jazarpena bere eremu guztietan zigortzen duten legeak eginez ere.

➤ Genero, jatorri, klase eta sexu orientazioagatiko diskriminazio arrazoi estrukturalak jorratzea eta generoen arteko harremanak eraldatu daitezela sustatzea, horiek berdintasunezkoak izan daitezen, gizarte guztia eta erakunde guztiak borroka horretan konpromisoak hartzera bultzatuz.

➤ Borroka eta baliabide horien artean bikotearen edo bikote izandakoaren barruko indarkeria jasotzea, hala nola sexu erasoak, lan arloko sexu jazarpena, emakumeak eta neskak sexu/lan arloan ustiatzeko xedez salerostea, adingabeen aurkako sexu gehiegikeriak eta indarkeria matxista guztiak.

➤ Udal gobernuaren esparru guztiak indarkeria matxistari aurre egiten eta hori ezabatzen mugiaraztea, baita indarkeria egoera jasan duten emakume guztiei laguntza eta babesa ematen ere, horien administrazio egoera edozein izanik ere.

➤ Herriko talde feministekin eta emakumeen elkarteekin lankidetzan:

1.1.- Udal plan integral bat garatzea indarkeria matxistari aurrea hartzeko eta horren adierazpen guztiei aurre egiteko, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak mugiaraziz.

1.2.- Eraso matxisten aurkako protokoloa indartuko du.

1.3.- Eusko Legebiltzarrari eskatuko dio emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei aurre egiteko beharrezkoak diren legegintza arloko neurri guztiak har ditzala.

1.4.- Halaber, mugimendu feministak antolatutako mobilizazioetan parte hartzera animatzen ditugu herritarrak.

Donostian, 2016ko azaroaren 22an

Miren Azkarate Villar

Ernesto Gasco Gonzalo

EAJ / PNVren bozeramailea

Portavoz Socialistas Donostiarras PSE-EE

Amaia Almirall López de Luzuriaga

Miren Albistur Garmendia

EH Bilduren bozeramailea

Portavoz PP

Amaia Martin Garín

Irabaziren bozeramailea